

SAILKAPENA:

1.3 Esnatze jolasa

IZENA:

Hegazti gripeduna

HELBURUA:

Giroitzea, taldearen kohesioa lantzea eta desinhibitzea/esnatze jolasa

DENBORA:

15 minutu

LEKUA:

Garrantzitsua da, espazio diafanoa beharko baitugu bi gurpil osatzeko.

TALDEAREN BALDINTZAK

Pertsona kopurua: 15 gutxienez/40 gehienez.

Taldearen egoera: Ezezagunen artean egiteko aproposa.

AZALPENA:

-Taldekideek gripea duen hegaztia pasa beharko diote elkarri. Panpina edo bestelako elementuren bat erabiliko dugu hegaztia irudikatzeko.

-Hasieran hegazti gripeduna duenak beste norbaiti pasa beharko dio.

Horretarako, ordea, panpina edo dena delako elementua, bestearen sabelean jarri beharko du, eta taldekide guztiak saiatuko dira beren sabela babesten izurritarek kutsatu ez ditzan. Sabela babesteko, taldekideek elkarren babesa bilatuko dute, sabela sabelaren kontra jarriz esate baterako.

-Taldekideek mugitu egin beharko dute etengabe, eta ezingo dute gelako elementu estatiko baten kontra jarri (zutabe bat, esaterako) sabela babesteko.

MATERIALA:

Panpina, pilota, plastikozko botila edo beste edozein elementu.

OHARRAK:

Sabelaz gain, gorputzeko beste edozein atal erabili daiteke.

ITURRIA:

Foroni, Nicola. Eraldaketa prozesuak. Zer, zertarako, nork, nola... Elhuyar Aholkularitza.